



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-07-10

VII URTEA 1.750 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



I. GARCIA

**IKER HERNANDEZ** PULTSULARIA

## «Teknika eta azkartasunarekin halterofilian ona izan zaitezke»

**VILLABONA-ZIZURKIL** Danena-Olaederraren lorpenek ez dute etenik: pultsulari gaztea Munduko Txapelketan izan da, eta Batis Kortajarena taldeko prestatzailea Espainiako selekzioko hautatzailea da egun **4-5**

## «Bizi maila altua» du herriak Udalak eginiko inkestak dioenez

**TOLOSA** Herriaren inguruko galderak egin dizkiete 460 herritarri; «oso ongi altu bat» eman diotela Tolosari herritarrek azaldu dute **3**

**Amarotz auzokoen lekukoa hartuko dute gaur lurreamendin**

**TOLOSA** Atzo futbol partida izan zuten; gaur ekitaldi ugari izango dituzte **3**

**Iker Goenaga trikitilariak disko berria jarriko du merkatuan irailan**

**ZIZURKIL** '... Arteraino' lana Ez Dakienak Baleki bere zigiluarekin aterako du **7**

## Hamaika bikote ariko dira lehian Paleta Txapelketan

**TOLOSA** Herenegun hasi zituzten partidak Berazubiko frontoian; 41. urtea da aurtengoa **3**

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Letiza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

**Z Zurea da hitza** 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 telefono zenbakian.

**Auzolanean egindakoak**

Lizartzako Udaltzako denen begibistan geratzen diren lekuan kokatzen ditu herri lanak eta izkurtuan geratzen diren konponketak, nahiz eta premia larriagoak izan, herritarrek auzolanean egin behar dituzte (herrien arteko bideak edo pistak, adibidez). Argazkian herritarrek, gazteluaren laguntza paregabearekin, Lizartza eta Gaztelu arteko bidea auzolanean konpontzen.

**Lizartzatik.****Ibarrako Udalarari**

Ibarrako Gazte Asanbladako kideok idatzi hau ateratzeko beharra ikusi dugu. Hainbat hedabidetan, zehazki HIRZA eta *El Diario Vasco*n, azaldutako Ibarrako Udalarari idatziak direla eta.

Idatzi hauetan Udaltzako Gazte Asanblaren itxura zikintzen baitu, Gazte Festetan herrian gertatutako txikizioen errua gurea balitz bezala. Txikizio hauek Euskal Herria kaleko lorontzietan eta San Inazio parkean gertatu ziren. Eta badakigu denok ez dela gertatzen den lehen aldia, herrian festaren bat dagoen bakoitzean gertatzen baitira horrelakoak eta ez da Gazte Festetan soilik gertatzen den gauza.

Gazte Asanbladako lagunok argi utzi nahi dugu ez dugula inongo erantzukizunik eta ez dugula onartuko horrelako gertakariak erabiltzea gure lanari itxura txarra emateko.

Horrela udaletxeari mezu hau zabaldu nahi diogu, arazoren bat baldin badute harremanetan jar daitezela gurekin aurre hitz egiteko, komunikabideak erabili beharrean. Bestetik, jakin nahi dugu neurriak noren aurka hartu behar dituzten, gu mehatxatzen ari al zarete? Txikizioen erantzule gu garelako uste baduzue oker zabilzate.

Azkenik, gure balorazioa positiboa izan da. Egindako lana herriarentzat aberasgarria izan da eta hurrengo urteetan berdin jarraitu-



Lizartzako herritarrek auzolanean. HITZA

**84 haur Galtzaundiren ludotekan**

**AISIA** ■ Galtzaundi Euskara Taldeak urtero Tolosan antolatzen duen ludotekan 84 haurrek eman dute izena. Aurtengoan Tolosako Kultur Etxean antolatzeaz gain, Ibarrakoan ere antolatu dute ludoteka. Ibarrako ludotekan 3 urteko haurrek eman dute izena, eta orotara 9 haur biltzen dira egunero jolasak eta jokua egitera. Tolosako ludoteka, berriz, 3 urtetik 10 urteko

haurrei zuzendua dago eta 09:00etatik 13:00etara egoten dira haurrak Kultur Etxean astehenetik ostiralera. Bertan eskulanak, lehiaketak, antzerkiak... egiteaz gain festa eta irteera ugari antolatzen dituzte: San Fermin Txiki eguna, ipuin kontalaria, igerilekua, hamaiketako... Irudian, ludotekako gaztetxoak San Fermin txiki egunean. HITZA

ko dugu herria piztuz eraso guttien gainetik.

**Ibarrako Gazte Asanblada.****Etxebizitza babestuen eskandaloa**

Dimisio hitza ezagutzen al dute udaletxean? Voith Gorostidiko etxebizitza babestuen zozketa bi aldi egin dute, aurrenekoan, 55 pertsonen zenbakiak «bonboan sartzea» ahaztu zaielako. Zenbat denbora izan dute zozketa hau prestatzeko gure udaletxeko funtzionario txiki gorenak? Lotsik ba al dute? Dimisio asmorik ba al dago etxebizitza zinegotziaren aldetik edo udaletxeko arduradunengan?

Ez dut pentsatu ere egin nahi, zer egingo nukeen, goizeko zozketan etxebizitza bat egokitu eta arratsaldeko zozketan kendu balidate: eta badira kasuak, bat eta bi baino gehiago. Egoera horretan daudenei, zorionak, eskupetarik ez hartu izanagatik. Udaletxekoei: azalpen bat mesedez!

**E. Mandiola.****Tren berrien inguruan**

Renfek aldiriko trenak aldatu ditu eta horren inguruan keza bat plazaratu nahi dut: tren berriek eserleku gutxiago dituzte eta beraz, Andoinea iristerakoan bertako erabiltzaileek ez dute jada esertzeko tokirik (batzutan lehenago ere bai). Gazteak direnek behar bada, ez dute arazorik izango baina bai helduagoak direnak eta hauek, gainera, beste oztopo bat ere topatzen dute tren berrietan ez dagoela komunik. Erabiltzaileak Renfeko bulegoetan kexatzera animatu nahi ditut, ea kasorik egiten duten!

**Ane.****Gau giroa alaitzeko**

Gaugiro bezalako ekimenak ondo daude. Oporretan herrian gaude-nontzat pentsatua dago, eta giro ederra dagoenean primerakoa da kalean zuzeneko musika izatea.

**Tolosar bat.**

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Udalak egindako inkestak dioenaren arabera, «bizi maila altua du Tolosak»

**Gizartea** » Sexu, adin eta bizilekuaren arabera banatuta, 460 lagunei egin dizkiete herriaren inguruko galderak telefono bidez.

## ESTI EZEIZA

«Oso ongi altu» bat eman diote herritarrek Tolosari. Herritarrek udal zerbitzuak baloratzeko aukera izan dute inkesta baten bitartez, eta orain emaitzak bildu ostean hainbat ondorio atera dituzte Tolosa 2015 sailekoek. 460 laguni telefonoz egin diete inkesta Gizaker enpresakoek, eta hauek, Tolosari buruzko hainbat galderari erantzun behar izan diete. Hainbat ataletan banatu dituzte gaiak eta baikoitzaren inguruko datuak ezberdinak dira.

Tolosa 2015 saileko arduradun diren Iurre Peñagarikano eta Antton Lekuona «gustura» daude emaitzekin, hauek «oso baikorrrak» baitira. Beraiek azalduak diren arabera, beste 10 herritan ere burutu dute ekimen hau, eta haieran, parte-hartzea txikiagoa izan da. Jasotako datuak barne hausnarketarako erabiliko dituztela ere agertu zuten, eta horrez gain, Udaleko beste sailetara banatuko dituztela emaitzak, hauek ere gogoe-ta egiteko. Barne kudeaketarako oso datu garrantzitsuak direla nabarmendu zuen atzoko agerraldian Peñagarikanok. Emaitza eta ondorio guztiak bildu ostean txosten bat osatu dute eta hau ikusgai dago [www.tolosa2015.net](http://www.tolosa2015.net) webgunean.

Gaizkien baloratuak izan diren atalak, lan aukerak izan dira. Hamarretik lauko nota jaso baitu, eta



Atzo arkezte zituzten burututako inkestaren emaitzak Antton Lekuonak eta Iurre Peñagarikanok. E. EZEIZA

Gizakerrekoen ustetan, «hau oso lotuta dago egun bizi dugun krisi ekonomikoarekin». Gazteriarri zuzendutako ekintzek ere emaitza txarrak jaso dituzte, eta hauei zuzendutako gauzak ezezagun dira oraindik ere askorentzat. Bestalde, herritar gehienek berdegune gehiago eskatzen dituzte.

Euskararen normalizazioaren alde egiten diren lanak nahikoa direla uste dute inkestariaren %74k eta %14aren iritziz, gehiago egin daitezke. Udalak egin dituen proiekturik onenez galdetzean, %15ak Usabal kiroldegia aipatu dute, %4ak herriguneko kaleen hobetzea eta %2,6ak kolektorea. %51k ez zuen jakin zer erantzun, galdera honen aurrean. Gauza txarrei dagokionean, %8ak trafikoa aipatu du eta %3,7ak herritarrei emandako laguntza urria. Azkenik %3k kolektorearen lanak nabarmendu ditu atal honetan.

Urte bat eta hiru hilabete igaro dira ur saneamenduko kolektorearen obrak hasi zirenetik, baina inkestak datuen arabera, oraindik ere zenbait lagun ez dira honetaz ohartu. Izan ere, inkestako galderetako bat zen, ea kolektorearen obretaz zerbaite entzun al duten, eta 100 lagunetatik 20k esan dute ezetz. Gainontzeko 80ek beharrezkotzat jotzen dituzte obra hauek, eta honen inguruan plaza-ratutako kexa nagusia, seinalezta-pen txarra da.

## Trafikoa eta langabezia, arazo handienak

Telefono bidez inkestak egitean, jendeak arazotzat trafikoa eta langabezia nabarmendu ditu. Lehendabiziko gaiarekin lotuta, bidegorrien eta garraio bide publikoen erabilera bultzatu behar dela uste dute. Bestalde, egokitzat jotzen dute autobus zerbitzua. Trafikoa-

ren arazoa, ibilgailu kopuru handiaren ondorio dela diote, nahiz eta ordenamendua hobetu daitezkeen. Honekin lotuta, kaleak oinezkoentzako soilik izan beharko luketela aipatu dute zenbaitek inkestak erantzutean, eta garraio bide publikoak nahiz bizikleten erabilera bultzatu auto pribatuaren ordez. Hala ere, hiriarren eboluzioaz hitz egitean, gehiengoaren ustean, zehazki %81aren iritziz, oso baikorra izan da hau.

Lan kontuei dagokionez, jasotako emaitzen arabera, tolosarren gehiengoak herrian bertan egiten du lan. %5 bat, Donostiara joaten da lanera, %1,5 Beasainera eta %1,3 Irujara. Honenbestez, ondorioztatzen dute, desplazamendu laburra egin behar dituztela oro har tolosarrek lantokira joateko. Aisaren inguruko galderak ere egin dizkiete herritarrei, eta hauek erantzun dute, gehinek, herrian

bertan betetzen dituztela aisi berrak. Tarteka bakarrik joaten dira Donostiara. Jaiei dagokionez berriz, galderak erantzun dituztenen %81ak parte hartzen du festetan, eta hauei zazpiko emaitza jar-tzen diete. Asteroko merkatua ere hizketagai izan da, eta honekin ar-ran handia jaso du herritarren-gandik. Horrela baieztatzen du %85ak.

Herritarren parte-hartzeari da-gokioean, tolosar gehienek ent-tzun dute gai honen inguruan hitz egiten. 18-29 urte bitartekoek eza-gutzen dute gutxien atal hau. Hala ere, galdetu diete ea parte hartuko al luketen beraien auzoan eragina dute foroetan, eta erdiak baino gehiagok esan du ezetz.

## «Etxebizitza ez da arazo larria»

Inkestako atalekako bat etxebizit-zari lotuta zegoen, honen ingur-uari aipatu dute tolosarrek, hau ez dela arazo larria. Izan ere, %64k eskaintza nahikoa dagoela uste du. Dena den, emaitza hau izatearen arrazoiak bat krisia dela uste dute inkestaren egileek. Baldintza ekonomikoak txarrak direnez, ohikoa baino txikiagoa da etxebizit-zituen eskaera.

Egun, tolosarren %17ak du fa-milian kide bat etxebizitza bila da-bilena. Horietatik, %84 Tolosan ari da bilatzen bizitokia eta ia %4 Donostian. Halaber, alokairuko etxebizitzen eskaera ere oso handia dela ikus daiteke. Herritarren iritziz, babes ofizialeko etxebizitza gehienak alokairukoak izan be-harko lukete. Gazteak dira ideia hau gehien defendatzen dutenak.

## Azken ondorioak

Inkesta egiteaz arduratu den en-presak, Gizakerrek herritarren adina, sexua, eta bizilekua hartu ditu kontuan jendea aukeratzeko garaian. Bi motatako galdetaketak egin ditu, alde batetik telefono bi-dezkoak, eta bestetik, esku-orri-kin egindakoak. Dena den, ondo-riok ateratzeko garaian, lehenda-bizikoak bakarrik hartu dituzte kontuan, «bigarrenen ateratako datuak kualitatiboki ez baitira gar-rantzitsuak». 6.000 inkestatik gora banatu zituzten etxez-etxe, eta horietatik 439 jaso dituzte erantzunda.

Gizakerrek ateratako ondorio orokorren arabera, «Tolosabizitza maila altua duen hiria da. Udal proiektuek errekonozimendu handia dute, baina aldi berean, kudeaketan zenbait hobekuntza egin daitezke».

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukera-ko garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) eta 695 708 271 (Belen).

# Gaur botako dute lurreamendi auzoan festetako txupinazoa

**Aisia** » Atzo hasi ziren futbol partidarekin lurreamendiko jaiak eta gaur ere hainbat ekitaldi izango dira arratsaldean.

## ERREDAKZIOA

Atzo hasi ziren lurreamendi auzo-ko festak. Bi egunetarako haurren-tzako, gazteentzako nahiz heldu-entzako ekitaldiak antolatu dituzte Tolosako auzo «berri» honetan. Bertsoa eta guzti egin dute auzokideek festa hauek iragartzeko: *Asteburuan dela / lurre-amendin jai, / helduak eta umeak / elkarrekin alai / barrikote, jolasak*



Usaba kiroldegian jokatu zen futbol partidarekin ekin zieten atzo jaiak. E. EZEIZA

/eta musikaz blai / berriz izango gera / parrandarako gai.

Kirol ekitaldi batekin ekin zieten atzo jaiei. Usabal kiroldegian futbol partidabaz izan zen ikusgai.

Dena den, gaur emango diete ofizialki jaiei hasiera. Txupinazoa botako dute 18:00etan. Garai berean, Iruñeako sanferminetan bezala, entzierroa korrituko dute. Zeren txikiak aterako dira, inguruko haurrak eta helduak aztoratzeraz. Ondoren, haurrentzako jolasak izango dira auzoan bertan.

Jaiei amaiera emateko, auzo afaria izango da 20:30ean. Txartelak salgai daude jada. Helduenek 25 euro balio dute, eta haurrenek, 10. Hauek, Eguzkilore kafetegian erosi daitezke. Edo baita, Kutxan, IKE izenean dagoen kontu korrantean ( 2101 0081 13 0012401097) dirua sartuta. Bertan, abizena adieraziz, heldu eta haurren kopurua azaldu behar da.

Danena-Olaederra Halterofilia Taldeko kideek zeresana ematen jarraitzen dute. Iker Hernandez pultsulari zizurkildarra Tailandian izan berri da 17 urte azpiko Munduko Txapelketan parte hartzen. Bestalde, Batis Kortajarena taldeko prestatzailea egun Espainiako selekzioaren hautatzaile bezala ari da ere. «Halterofilian Zizurkil eta Villabona ezagunak dira», dio azken honak.

## «Teknika eta azkartasuna baduzu, halterofilian ona izateko aukera duzu»

IKER HERNANDEZ | Pulsularia

IGARCIA Iker Hernandezek (Andoain, 1992) 10 urte daramatza Zizurkil-en bizitzan. 9 urtekoan hasi zen halterofilian. Bi alditan utzi ondoren, hirugarren aldian serio heldu zitzaizkion. 13 urtekoan hasi zen pisuak altxatzen. Hiru aldiz irabazi du Espainiako Txapelketa, adin tartean ezberdinetan. Euskoakiko Txapelketak eta Giza-zuzeneko Txapelketak ere irabazi ditu. 17 urte azpiko Munduko Txapelketan izan berri da Espainiako selekzioaren kidea. Tailandian, Orain arteko sarri handiena izan dela dio.



han egiten zuen berroarko... Gauko hamaretan zen txapelketan eta berro ikargarria egiten zuen, 31 graduko. **25. postuan amaitu zenuen. Esperor zenuen postu horretan bukatuz?** Nire helburua azkena ez bukatzen zen eta marka hobetzea. Azken hau ez nuen lortu, baina azkena ere ez nintzen gailu. **Gutxienez zure marka berdin izan bazenu, posturik aurreratuko zenuen, eza?** Bai, postu hobetago izango nuen. **Munduko beste pultsulari batzuk ikusteko aukera izan zenuen.** Batzuk klustean izen gu baino herrialde txiroetakoak zirela, baina gero gu baino gehiago altxatzen zuten.

## «Nik zortea izan dut jendearekin: kirolari onak izan ditut eta emaitza onak lortu ditugu»

BATIS KORTAJARENA | Danena-Olaederrako prestatzailea eta Espainiako selekzioko hautatzailea

IGARCIA Batis Kortajarenak (Astasu, 1951) 21 urte daramatza bizitzan Zizurkil-en eta 31 urte daramatza halterofiliako prestatzaile bezala. Danena-Olaederrako prestatzaile izateaz gain, egun Espainiako selekzioaren hautatzaile ere den. Halterofilian Zizurkil eta Villabona ezagunak dira. Taldeko baita pultsulari aritu dira Europako eta Munduko txapelketetan parte hartzen. **Taldeen egindako lan horrek guztiak bai izan ditu Espainiako selekzioko hautatzaile izateko.** Nik aste dut penstasun zutela fenomeno bat nintzen emaitzaile bezala eta hori ez da horrela. Ni besteak bezalako naiz. Ez dago sekreturik kirolari. Bai jakin behar dituzte auzeraren dinen gaitza berriak, kirolarien gainean egon eta zortea izan pika bat izan. Nik zortea izan dut jendearekin. Jende oso onak izan da eta orduan emaitza oso onak lortzen ditugu. **Aurretik lotura izan duzu Espainiako selekzioarekin.** 1995an hasi nintzen nazioarteko txapelketen parte hartzen prestatzaile bezala. Orduan hautatzaile kirolari bat nintzen Madrilen eta haren laguntzaile bezala joaten nintzen txapelketetara. Garai horretan gure taldeki Andoni Kortajarenekin jarraitzen nintzen.



izango zutela, baina jarraitu nahi izan zuten eta orain arte. **Batez ere Zizurkil eta Villabonako talde bat izateko, maila handiko taldea da eta sari asko irabazita koak.** Espainiako txapelketetan hiru auzerokotan sartzen gara beti. Halterofilian Zizurkil eta Villabona ezagunak dira. Taldeko baita pultsulari aritu dira Europako eta Munduko txapelketetan parte hartzen. **Taldeen egindako lan horrek guztiak bai izan ditu Espainiako selekzioko hautatzaile izateko.** Nik aste dut penstasun zutela fenomeno bat nintzen emaitzaile bezala eta hori ez da horrela. Ni besteak bezalako naiz. Ez dago sekreturik kirolari. Bai jakin behar dituzte auzeraren dinen gaitza berriak, kirolarien gainean egon eta zortea izan pika bat izan. Nik zortea izan dut jendearekin. Jende oso onak izan da eta orduan emaitza oso onak lortzen ditugu. **Aurretik lotura izan duzu Espainiako selekzioarekin.** 1995an hasi nintzen nazioarteko txapelketen parte hartzen prestatzaile bezala. Orduan hautatzaile kirolari bat nintzen Madrilen eta haren laguntzaile bezala joaten nintzen txapelketetara. Garai horretan gure taldeki Andoni Kortajarenekin jarraitzen nintzen.

ten nintzen. 2000 urtean hautatzaile zelatzen zuten eta erruak bat jarri zuten. Nire negonon ados berak zeukan bidareekin eta nik orduan ere nuen berezi egin nintzen selekzioari orain arte. Hasi nintzen lehenengo urtean pika bat harren emaitza beste hautatzaileekin. Orain lau urte izan nintzen Mediterraneo Jokoetan. Auzerian (Espainia) eta ordundik nahiko libratuta egon naiz eta lana behar nuen egun dut. Nire gustatzen zaidana da lana nire gimnasioan egitea. **Eta auzerian hasi zara zu hautatzaile izateko.** Espainiako Federazioko lehenakak dituzt zaiden hautatzaile bezala Madrilen egiteko proposatzen. Nik esan nuen familia behar nuen nuela, lana ere bai eta taldea ere, eta ni haren ez nintzelako joango. Orduan, selekzioa bertik jalkin zidana ados nengoen tarteka Madrilen joateko, bertan kirolariak elkarrekin, nik ikasi eta gero hautatzaile nik egitea Europako eta Munduko txapelketara joateko. Proposamen horri baietz esan nien. Hilken prestatzaile gaitza berriak, kirolarien gainean egon eta zortea izan pika bat izan. Nik zortea izan dut jendearekin. Jende oso onak izan da eta orduan emaitza oso onak lortzen ditugu. **Aurretik lotura izan duzu Espainiako selekzioarekin.** 1995an hasi nintzen nazioarteko txapelketen parte hartzen prestatzaile bezala. Orduan hautatzaile kirolari bat nintzen Madrilen eta haren laguntzaile bezala joaten nintzen txapelketetara. Garai horretan gure taldeki Andoni Kortajarenekin jarraitzen nintzen.

den zuten. Hauxe txapelketetara joaten zirenean ni berakiekin eta ginoentzako kirolariekin jo-

### Hasieran halterofilia gogorra da ikusteko, baina gero gustura aritzen zara

Amia hasi zen halterofilia egiten eta behin esan zidan etortzeko probatzen eta horrela hasi nintzen. Gero auzoko lagun batzuekin hasi ginen etortzen eta gure artean lehia sortzen zen. **Eta gaur egun nola eramaten duzu kirola?** Hasieran gogorra da ikusteko, baina gero gustura aritzen zara. **Halterofilia ez da beste kirol batzuk bezain eguzkoa. Zer esango zenitoke kirol hau ezagutzen ez duen bati?** Teknika eta azkartasuna behar da. Hortik beldu baduzu kirola noretan onaitzeko aukera duzu. Bestalde, halterofilia egiteagatik ez zara txiki galditzen. Eskoiztan den bezalako da. **Nolako izaten duzu prestatzea?** Txapelketa baten aurretik eguneroko entrenamendu. Estrojenak, se-telohetanen, nire gehiengoren %80a entrenamendu, gero aste-artertan jaitzi pika bat, astez-astean egitea, ostegaitza jaitzi eta, larunbatean txapelketa badaukagu eta hementik gertu bada, ostirale-tan sahe-subae aritzen zaiz.

### 62 kiloko mailan mantentzea eta Euskadiko errekorrak lortzea dira nire asmoak

**62 kiloko mailan lehiatzen zara. Egun zer marka duzu?** Arrankadan 98 kilotetan bi denbortan 115 kilo. **Eta zer asmo duzu aurrera begira?** 62 kiloko mailan mantentzea eta Euskadiko errekorrak lortzea. **Zer baten daude errekor horiek?** Arrankadan 102 edo 103 kilotan dago, baina bi denboratoko 130 kilotan dago. **Zerbat ordutan aritzen zara entrenatzen?** Goizean etortzen baramiz, la ordu bat edo aritzen naiz. Arratsaldean, ordu bat eta batzutan ordu eta erdi ere aritzen naiz. **Halterofilia kirol individuala da. Baita maila kolektibo sailkaponean izaten dugu txapelketetan.** Entrenatze batura aritzen zara. **Normaldean gehienak garatzen gara ordu batean, batera etortzeko.** **Eta zuen artean izaten duzue lehiak?** Malla berdineman bagaude aritzen bai, izaten dugu. Horrek ere laguntzen du markak hobetzeko.

### Mediterraneo Jokoetan hobeto arin gela penstasun gaitza, baina maila handia zen

Munduko Txapelketetara ez dira joaten, dirurik ez dutelako, baina Batis jentuen maila handia dutela, Hauxe egiten dute bere arteko lehia Mediterraneo Jokoetan azalarazi eta ematen dute ekipa osoa joateko diru prestakuntza dituzte Olimpik Jokoetara joango balira bezala. **Zer suposatzen du zuretzat Madrilen joan behar izateko?** Hemen, gaitza oso gaitza konprometitzen dira. Prestatzen dituzte txapelketak, baina azkeneko momentuan. Kirol hau oso gogorra da. Sisiengoren lan handiegia, baina ezin dugu, jendeak ez duela konprometitu nahi. Hiru edo bi egunetan entrenatzen, ezin da sei ordu egitea. Begiratzen dut nola dabilzun pisuan aldetik, zer entrenamendu egiten ari diren, eta egiten dugu hautatzaile. Ondu edo gaitziki gero ikusiko da. Egia esan aukera gehiagiere ez dago. Une nahiko lasterrak da. Oso ondo zortzen jendea pika bat gelditu egin da eta Blume Erresidentzian garbitasuna egin behar dugu. **Hautatzaile izateko zure lanaren errenkontzimentu bezala hartzen duzu?** Lan gehiago. Errenkontzimentuaren aldetik penstasun dut beti ondo ikusita egon naizela Espainiako Federazioan. Orain lau urte egiten zen ranking baten prestatzailean aritzen, azken hogei urtean egindakoaren arabera, bigarren atara nintzen. Horretatik

## Jokoan dira 41. Paleta Txapelketako partidak

Tolosa. 11 bikote arko dira jokoan 24ra arte Berazubiko frontoiari jokatu dion kanporaketetan.



Guetra, 11 bikote arko dira txapelketaren...

### KANPORAKETEN EGUTEGIA

- Uztailak 10, gaur**
  - Lorito-Nazabal bikoteak Karerra-Izagiren aurka jokatu dute.
  - Gutierrez-Lizuraga Orikaitzgi-Zelaiaren aurka.
- Uztailak 20, astelehena**
  - Lorito-Nazabal Gutierrez-Lizuragiaren aurka.
  - Otermin-Gotia Karerra-Izagireren aurka jokatu dute.
- Uztailak 21, asteartea**
  - Niko-Txepel Aranalde-Goikoe-tzeandianen aurka jokatu dute.
  - Apeztegi-Maiza Ygueros-Aldazabalen aurka.
- Uztailak 22, asteazkena**
  - Lorito-Nazabal Orikaitzgi-Zelaiaren aurka.
  - Balerdi-Agüire Gutierrez-Lizuragiaren aurka.
- Uztailak 23, osteguna**
  - Ygueros-Aldazabalek Zubillaga-Zabalaren aurka jokatu dute.
  - Apeztegi-Maiza Niko-Txepelena aurka.
- Uztailak 24, ostirala**
  - Lorito-Nazabalek Otermin-Gotiairen aurka jokatu dute.

**Herenegun, lehen partidak** Hirteen ban jokatu zuten txapelketako lehenengo partidak. Alde batetik, Balerdi-Agürek Lorito-Nazabalen aurka jokatu zuten 30-28ko emaitzarekin. Bestetik, Otermin-Gotia Orikaitzgi-Zelaiaren aurka jokatu zuten, baina partida bertan behere geratu zen eguraldiarengatik.



Giro polita sortzen da Berazubiko pilotalean. I. ERREDA

# Euskal Herriko folklorea Italian barrena

**Ibarra** » Ibarra Ion Garmendiak eta Iñaki Plazak Italiako Maiolati herrian egin duten Eurofolk Jaialdian hartu dute parte.

REBEKA CALVO

Lau egunez Euskal Herriko folkloreaken beste ikuspegi bat eskaini dute Ibarra Ion Garmendiak eta Urduñako (Bizkaia) Iñaki Plazak Italian.

Izan ere, Maiolati herrian izandako Eurofolk Jaialdian parte hartzeko gonbita jaso zuten musikari euskaldunek, eta ez zuten zalan-tzarik izan; euren 20 Hatz proiektua aurkezttera joan ziren hilaren 2tik 5era Italiara.

«Antolatzailak jakinda Iñaki Plaza eta Ion Garmendia bikoteak eskaintzen duen lan ildo oso aberasgarria izan zitekeela jaialdian zehar, biak gonbidatu zituzten euren azken diskoa eta proiektua erakusteko», argitu du Baga-Biga Musika Ideiak Produzkioko



Orain gutxi aurkeztu zuten Iñaki Plazak eta Ion Garmendiak 20 Hatz Proiekt diska Donostian. R. CALVO

Ritxi Aizpuruak. Bikoteak orain hilabete gutxi aurkeztu zuten 20 Hatz proiektuko «hirugarren geltokia»; 20 Hatz Proiekt izeneko diskoa, eta bertan bildutako 13 kantua ere aurkeztu zituzten, hortaz, Italian.

Era berean, Euskal Herriko musika tresna tradizionalen erakus-

keta eta ikastaroa, Euskal Herriko dantzen ikastaroa, kontzertu didaktikoa, txalaparta ikastaroa eta beste herrialdeetako musikariek in-entsegu desberdinak burutu zituzten Eurofolken.

«Oso harrera bikaina izan zuen kontzertu didaktikoen alorrak eta ikusleak zein beste musikariak

txundituta utzi zituzten eskainitako folkloren espermentazioarekin, eta batez ere, pvc-ko tubioghaxuarena egiten, trikitixa, alboka, txistua eta txalaparta prozesatuak, edota egurrezko txalaparta eta plastikozko bidoiak nola erabiltzen zituzten ikusterakoan», nabarmendu du Aizpuruak.

## «Txalaparta egiten zitzaien deigarrien»

ION GARMENDIA » Musikaria

REBEKA CALVO

Ion Garmendia ez da alperrik galtzen; orain egun gutxi Italian zegoen, Eurofolk Jaialdian eta atzo Iruñean zegoela hartu zuen HITZA, Sanferminetan murgilduta dabil eta egun hauetan, txistulari bezala kaleak alaitzen. Italian «oso harre-ara ona» izan dutela dio, nahiz eta musika tradizionalarekin batera egiten duten espermentazioa nola jasoko zutenaren beldur ere baziren.

**Eurofolk Jaialditik etorri berri zarete Iñaki Plaza eta biak, zertan aritu zarete Italian?**

Leku desberdinetako taldeak bildu ginen bertan, izan ere jaialdian talde desberdinen arteko lehiaketa bat ere egiten dute. Bestalde, italiarrez gain, beste herrialde batzuetako musikariak ere gonbidatzen dituzte, eta kasu honetan Euskal Herri-rik gu gonbidatu gintuzten. Portugalekoak ere joan ziren, Itali-ahagoaldekoak...

**20 Hatz proiektua aurkezteko aukera izan duzue, hortaz, bai egin ohi dituzten kontzertu didaktikoen bidez eta baita '20 Hatz Proiekt' diskoa aurkeztuz...**

Bai, horrela da, kontzertu didaktikoez gain, txalaparta eta dantzen ikastaroak ere egin genituen... Bost egunetan egunero aritu ginen lanean.

**Nolako harrera izan zenuten?**

Oso ona. Beste taldeek egiten zuten- baina, batez ere lehiaketa hartu zu- tenak parte, oso tradizionala zuen eta ondorioz, urduritasun puntu



R. CALVO

bat ere jarri zitzagun, baina egia esan oso ondo hartu gintuzten eta jendeak zori ondu egin gintuen, baita epaimahaiko kideek ere...

**Beste herrialdeetako musikariek in-entseiatzeko aukera ere izan zenuten, ezta?**

Saio desberdinak egiten aritu gin- nen, ondoren elkarrekin prestatu- tako abestiak jotzeko. Euskal He- rriko abesti pare bat jo genituen, Portugalekoek proposatutako beste abesti bat ere jo genuen... Az- ken egunetan jo genituen abestiak eta gustura aritu ginen.

**Nolakoa zen prozesu hori?**

Guk adibidez kantu bat proposatu genien, jotzen hasi eta beste musi- kariek entzun eta euren instru- mentuekin zer egin zezaketen az-

tertzen zuten, denen artean mol- daketa egiteko.

**Zuek hemendik eramandako ins- trumentuetatik zein izan zen ita- liarren artean harridura gehien piztu zuena?**

Txalaparta, txistua, alboka, tri- kitixa adibidez, eurek ere badute, es- kusoinua bada ere, nahiz eta ez den guztiz berdina. Txalaparta egiten zitzaien, hala eta guztiz ere, deigarrien.

**Eta zuei?**

Guri jotzeko moduak eman zigun atentzioa, batez ere. Tresna asko antzekoak dira, baina oso modu desberdinak daude jotzeko.

**Zergatik dira garrantzitsuak era honetako elkarlanak?**

Helburua da hemendik kanpora gure musika zabaltzea, ez bakarrik musika, kultura desberdinak eza- gutaraztea ere garrantzitsua da, beste musikari batzuekin gauza berriak ikastea...

**Zer nolako indarra du folkak Ita- lian?**

Osasun oso ona du. Jaialdiak iraun zuen bitartean, egun guztian zego- en hango norbait eskusoinuarekin eta panderoarekin abesti tradizio- nalak jotzen eta inguruan gazte jendea dantzan. Egun guztian giro oso onazuten. Askozaz gehiago es- timatzen dute.

**Hemengo pandero berdinak era- biltzen al dituzte Italian?**

Pandero batzuk oso antzekoak dira, baina oso modu desberdine- an jotzen dute. Oso teknika des- berdina erabiltzen dute, baina ho- rretarako Italiaraino joan beharrik ere ez dago, Galizian, esate batera- ko, gure pandero bera jotzen dute, baina oso teknika ezberdina era- biltzen dute.

**Zertan ari zarete orain Iñaki Plaza eta biak?**

Kontzertu didaktikoen garaia bu- katu dela esan dezakegu, eskolak oporretan daudelako, eta orain kontzertuak eskainiko ditugu, ba- tik bat. Alegian joko dugu hilaren 19an, asteburu honetan Kataluniar- a joango gara urtero egiten duten akordeoi topaketetan parte har- tzerako, abuztuaren 15ean Aranku- diagan (Bizkaia) joko dugu, abuz- tuaren 24an Ibarra-ko jaietan... Oraindik ere lana dugu aurretik.

## Laburrak

**Kanpoan bizi direnek ere egitaraua jasotzeko aukera**

**IBARRA** » Ibarra Udaleko Kultura Sailak abuztuaren ospatuko diren San Bartolome jaietako egitaraua bidali nahi die kanpoan edota atzerrian bizi diren ibartar guzietan. Hori dela eta, norbaitek Ibarrik kanpo bizi diren senitarteko edota lagun ibartarrei jaietako egitaraua bidaltzea nahi badu, Benito Izagire kultur etxera joateko edota 943 67 03 99 telefono zenbakira deitzeko eskatu du Udaleko Kultura Sailak.

**ELAk manifestazioa egingo du gaur, 11:30ean**

**VILLABONA** » ELA sindikatuak mani- festazioa deitu du gaurko, 11:30ean Villabonako plazatik abiatuta. Manifestazioa greban dauden herriko Santiago zahar egoitzako langileei bere babesa agertzeko egingo dutela esan du sindikatuak eta bertan ELAko Idazkari Nagusia, Adolfo Muñoz Txiki, eta Konfederazioko zain sek- toreko arduradunak egongo direla esan du sindikatuak. Aipatu behar da, era berean, langileek greba irai- laren 15era arte luzatuko dutela ar- gitu dutela.

## T Telefonoak

**Larrialdiak. ((112))**

**OSASUNA.**

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# «Gustura egin dut lan Enbeitarekin»

ITSASO ETXEBESTE » Baxu-jotzailea

**Belauntza** » Urtarrilaren bukaeran grabatu zuten diskoa eta joan den hilean argitaratu; «pozik» dago emaitzarekin.

## NEREA URBIZU

Itsaso Etxebestek (Belauntza, 1981) Jon Enbeita bertsolari eta bakarlariarekin kolaboratu du bere *Hainbeste, hain gutxi* disko berrian. Emaitzarekin «pozik» dago baxu-jotzailea, eta areago sortu diren harremanekin dago.

**Non grabatu duzue lan hau?**

Azkaraten egin genuen, Katarainen Jonan Ordorikarekin. Urtarrilaren bukaeran grabatu genuen.

## Nolan Jon Enbeitarekin?

Rafa Ruedak ere grabatu du Enbeitarekin eta bere bitartez hartu dut parte proiektu honetan. Rafa Ruedak Katamalo proiektuan ezagutu ninduen baxua jotzen eta ondorioz, honetan lan egitea proposatu zidan.

## Orain arte estudioan ez duzue inoiz disko oso bat grabatu?

Ez, guztiz edo osorik ez. Esperientzia polita izan da, gustura egin dut lana. Gainera giro oso ona sortu da gure artean eta elkarlana egon da

estudioan, entseguetan bezala. Osogiro ona egon da.

## Beraz, gustatu zaizu?

Bai, gustatu zait, polita izan da. Gainera, abestiak hutsik pasa zizkigun Enbeitak, gitarra eta ahotsarekin bakarrik. Gu sortzen eta gauzak gehitzen joan gara eta abestiek forma nola hartu duten ikustea eta ondorioz, honetan lan egitea proposatu zidan.

## Lanaz folk kutsua duela esaten da.

Bai, funtsean folk-a da, baina esan bezala, bakoitzak bere apurtasiorik edo, beste kutsu edo estilo

batzuk ere jorratzen dira. Baina bai, folk-a agerian geratzen da.

## Kontatu pixka bat nola egin du zuen lan.

Jon Enbeitak abestiak pasa zizkigun eta bakoitzak bere etxean landu zuen zertxobait. Grabatzen hasi aurretik hiru entsegu egin genituen denek. Pentsa, grabatzen hasi aurreko egunean elkartu ginen eta bi egunetan grabatu genuen guztia. Lehenengo egunean bateriak, baxuak eta teklak grabatu genituen, hiruek batera. Eta hu-

rrengoan gitarrak, biolinak, mandolinak eta ahotsak egin zituzten, gutxinaka bestearekin nahastuz. Akordeoi baten kolaborazioa ere izan da diskoan.

## Zuzenekoetan nola egingo duzue?

Enbeitak bakarlariaren papera edo, azpimarratzen du. Ez da ahaztu behar gainera, bertsolaria izanik letrei ematen dien garrantzia (hausnarketa asko egiten ditu). Saio askotan bera bakarrik aterako da, gitarrekin, baina beste batzuetan estudioko formatoa egongo da, edo gehienak behintzat bai egongo gara.

## 'Hainbeste, hain gutxi' nola lor daiteke?

Lankurekin eskuratu daiteke. 943 260 755 telefono zenbakira deituz eta horrela etxera bidaltzen dute; edo bestela [www.lanku.com](http://www.lanku.com) webgunean. 15 euro balio du diskoak.

# Iker Goenagak '... Arteraino' laugarren diskoa datorren irailean argitaratuko du

**Zizurkil** » Ez Dakienak Baleki zigilua erabiliko du oraingo lanean; orain arte Elkar argitaletxearekin egin du lan trikitilariak.

## ERREDAKZIOA

Datorren irailean Iker Goenaga zizurkildarrak disko berria aterako du. Lehen aldiz bere zigiluan aterako du lan berria, ... *arteraino* izena duena. Orain arte Elkar argitaletxearekin kaleratzen zituen trikiti doinuak.

Bere laugarren lana, beraz, Ez Dakienak Baleki zigilu berriak aterako du, eta kasu honetan ... *arteraino* disko berria. 13 abestiz osatuta egongo da diskoa. Zizurkildarrarekin Iban Gurrutxaga amezketarrak parte hartuko du beste behin gitarra elektrikoarekin. Beraiekin batera Beñat Barandiaran gitarra-jotzailea, Mikel Atxega baxu-jotzailea eta Iñigo Egia perkusio-jotzailea ariko dira.

Dagoeneko aurrerapen kanta entzun daiteke bere webgunean; [www.ikergoenaga.com-en](http://www.ikergoenaga.com-en), hain zuzen ere. Joseba Sarrionandiarren letra duen *Umea eta mapa* da entzun daitekeena.

Bere azken diskoa *Amorrua* da (Elkar) eta duela hiru urte argitaratu zuen.

## Guztira 13 kanta

Disko berriak 13 kanta bilduko ditu: *Aldatu nahian geroa, Antxoko Portugal, Egunoro, Ekaineko haizea, Errazkin, Eta egunero dugu bezpera, Gertatu balitz, Gogoetak, Paris, Quebec, Umea eta mapa, Urteak eta Xaima.*



'Amorrua' diskoa duela hiru urte atera zuen, Elkarrekin. ANDER GILLENIA

*Amorrua*, Iker Goenagaren hirugarren diskoa, «melodia suerikor eta kantu ederren aukeraketa paregabea» izateaz gain, «berezko identitate etniko eta kulturalen transmisioaren alde egindako lan paregabea» da; bertan erabiltzen den lengoia «berrizalea» izanik,

«emozio bizien iraunkortasuna bermatzen duen publiko gaztearekin berehala konektatzeko sortua baita».

Irailetik aurrera, beraz, Iker Goenaga eta bere musikariaren 13 kanta berriak entzun ahal izango dira irratietan.



Gurrutxagak disko honetan ere parte hartuko du. N. URBIZU

**@ Eztabaida.** 'Voith Gorostidiko zozketa errepikatu behar izan zuten, zenbaki batzuk bonboan sartuta ez zeudelako. Ordurako 55 etxebizitza banatuta zeuden eta hauek baliogabetu zituzten. Nola uste duzu konpondu daitekeela hau? Nork hartu behar du ardura?' HITZAREN webguneko eztabaidagunean sar zaitez eta eman zure iritzia besteak ere ikusiz. Bestela ere, gai gehiagotaz iritzia emateko aukera izango duzu: abortoa, Eitb-ren eguraldia emateko irizpidea...

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

# Irene Usabiaga txirrindularia Espainiako txapelkun izan da kadete mailan

**Txirrindularitza** » Espainiako CRI eta txapela eskuratu ditu; gaur, lineako proba egingo dute infantilek eta kadeteek.

## ERREDAKZIOA

Tolosa CF taldeko Irene Usabiaga txirrindularia Espainiako txapelkuna izan da. Kadete mailan erlojuaren aurkako proban gailendu zen ordiziarra. Cuencan (Gaztela Mancha, Espainia) jokatu zen atzo eta 8,23 kilometroak 11 minutu eta 59 segundotan eginez.

Urrea lortu zuen eta Espainiako Txapelkuna izan da ondorioz Irene Usabiaga. Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin parte hartu zuen.

Zilarra Judith Vidal Balentziarentzat izan zen, minutu erdia aterata. 12,30ko denbora behar izan zuen proba burutzeko. Brontzea Eider Merinok (Euskadi) eskuratu zuen (12,45).

Gaur lineako txapelketa jokatu dute eta 39,62 kilometro egin beharko dituzte.

# Gaur eta bihar Joxean Tolosa Txapelketako partidak izango dira

**Amezketak** » Azpeitia eta Añorga ariko dira gaur, eta bihar Arrasate, Usurbil, Olazti eta Zaramaga.

## ERREDAKZIOA

Pilota partidez beteriko asteburua izango dute Amezketan. Gaur eta bihar kontuan izanik, Amezketako pilotalekuan 9 norgehiagoka jokatuko dituzte XX. Joxean Tolosa pilotari Txapelketan. Gaur 22:00etan Azpeitia eta Añorga ariko dira aurrez aurre.

Bihar, berriz, arratsaldeko jardunaldietan Arrasate eta Usurbilen txanda izango da. 16:30ean hasiko dira kadeteen banakako partidarekin.

Bukartzeko, bihar gauean 22:00etatik aurrera Olazti eta Zaramaga ariko dira. Beti bezala, kadeteen, gazteen eta nagusien arteko banakako partidak izango dira jokatuko dituztenak. Oraingoan, Lazkaoren eta Andoainen arteko jokatua da eta Andoainek egingo du aurrera.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** The Billie Jeans musika taldearen kontzertua Lopez-Mendizabal pasealekuan 22:30ean, Gau Giro programazioan. Pop etnikoa egiten dute.

### Erakusketa

■ **Hernialde.** Uztailaren 13ra argazki erakusketa ikusgai hernialdeko ostatuan. Erakusketaren izenburua: *Sahararak, herri bat erbestean*. Ander Gillenea argazkilaria Tinduf-eko errefuxiatu eremuan ateratako argazkiak. Antolatzailea: Hernialdeko ostataua.  
■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa Aranburu Jauregian.  
■ **Tolosa.** Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aranburu Jauregian.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Igandean, hilaren 12an, Arcena mendizerrara (Valderejon, Cueto eta Mota mendiak igoz) joango da Alpino Uzturre elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).  
■ **Tolosa.** Hilaren 11n arroilen jaitseira antolatu du Oargik La Leze kobazuloan (Araba). Doan Oargikoentzat eta 4,5 euro ez bazkideentzat. Izen-ematea, 688 698642 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatu du Harizpe jubilatu elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (pentsio osoa 257 eta 262 euro).  
■ **Tolosa.** Topaguneak antolatutako Udagazteko irteerak: hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Mutrikan eta Spraykada graffiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkea. Izen-



## Gerra Zibilean oinarrituriko filma

**KULTURA** ■ Egunotan *Izarren Argia* filma ari dira grabatzen Azpeitian. Mikel Rueda da zuzendaria, eta aktore protagonisten artean Barbara Goenaga alkizarra dago. Azpeitian ezetik Hondarribian eta Oiartzunen ere grabatuko dute. Baleukok ekoizko du, ETB, Eusko Jaurlaritza eta Emakundek parte hartzen dute, eta 2 milioi euroko aurrekontua du. Gerra Zibilean irudi-

katiriko filma benetako gertakizunetan oinarritua dago. Saturraranen emakumeen espesxe batean; mojek kudeatutako egoitza honetan Vallejo medikaren teoria hartzen zuten aintzat, hau da, komunismoa eta ezkerreko ideiak desagertzeko emakumeak euren haurrengandik baztertzeko zituzten. Protagonistek esperantza mantentzea lortuko dute. HITZA

ematea Topagunean bertan egin ahalko da.

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan eginez eta otorduak jatetxeetan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Lus M.) zenbakietan.

### Deialdiak

■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailaren 12an 10:30ean (7 km) Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan. Antolatzailea: Santamaña elkarteak.  
■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabal igerilekuan, asteleheneetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.  
■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an grafiti, hilaren 15ean filma proiektatuko dute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.  
■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatu dituzte. Taldeak umeentzat nahiz helduentzat irekiak dade. Izen-ematea dendan (Gernikako arbola, 4) edota 676140622 telefonoan.  
■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubin hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodi-illo eta saltxitak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkartearen. Antolatzailea: Berazubi elkarteak.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Janitz Sagastibeltza Bengoetxea (Leitza).** Gaur 2 urte. Zure osabaz ibera eta aitona-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak